



---

## AUTOGOBERNUA ETA EUSKADI MUNDU ZABALEAN

---

### **Autogobernu gehiago bizi-kalitatea da**

Konpromisoa hartzen dugu egungo Gernikako Estatutua osatzeko, eta Estatuko gobernuaren promesak betearaziko ditugu, gure ongizatea bermatzeko eta aurrera egiteko Euskadirentzat estatus berri bat lortzeko bidean.

### **Bermatu egingo ditugu euskal herritarren eskubide politikoak, ekonomikoak, sozialak, linguistikoak eta kulturalak.**

### **Gure ahotsa Europan**

Makroeskualde Atlantikoa bultzatuko dugu, Euskadik Europan ahotsa izango duela bermatzeko eta, hala, erabakimena izateko zuzenean eragiten diguten gaietan.

### **Euskararen sustapen sozial eta globala**

Euskararen presentzia eta erabilera bultzatuko ditugu esparru sozial guztietan eta eremu digitalean jauzi kualitatibo bat emango dugu, horretarako corpus digital bat sortuz euskararen presentzia ingurune digital guztietan bermatzeko.

### **Bikaintasun-hezkuntza**

Uste osoa dugu hezkuntza-eredu propioa duen Euskadi batean; bikaintasunezko sistema unibertsal bat, inklusiboa, berdintasunezkoa eta eleaniztuna, euskara ardatz hartzen duena; erabat sinesten dugu hezkuntza-eredu horretan, eta hantxe eskuratuko dituzte gure seme-alabek bizitzarako gaitasun eta trebetasun onenak.

---

## AUTOGOBIERNO Y EUSKADI EN EL MUNDO

---

### **Más autogobierno es calidad de vida**

Nos comprometemos a completar el Estatuto de Gernika actual, hacer cumplir las promesas del gobierno del Estado para garantizar nuestro bienestar y avanzar hacia un nuevo estatus para Euskadi.

### **Garantizaremos los derechos políticos, económicos, sociales, lingüísticos y culturales de la ciudadanía vasca.**

### **Nuestra voz en Europa**

Impulsaremos la creación de la Macrorregión Atlántica para garantizar una voz propia de Euskadi en Europa y así tener capacidad de decisión en aquello que nos afectan de manera directa.

### **Promoción social y global del euskera**

Impulsaremos la presencia y el uso del euskera en todos los ámbitos sociales, y daremos un salto cualitativo en el ámbito digital, creando un corpus digital que garantice su presencia en todos los entornos digitales.

### **Educación de excelencia**

Creemos en una Euskadi con un modelo educativo propio, con un sistema universal y de excelencia, inclusivo, igualitario y plurilingüe, con el euskera como eje, donde nuestros hijos e hijas adquieran las mejores competencias y capacidades para la vida.